



**JANTOKIKO BATZORDEA: ZERGATIK EZ DU IZAN BEHARKO LUKEEN GAITASUN
ERALDATZAILEA? JANTOKI OSASUNSUAGOAK ETA JASANGARRIAGOAK LORTZEKO PARTE-
HARTZE PROZESUA**

**Prozesu hau aurrera eramateko, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea izeneko metodologia parte-hartzailea erabiliko dugu.*

ZER DA IKERKETA PARTE-HARTZAILEA (IEP)?

Ikerketari buruz pentsatzen dugunean, lehenengo ideia izaten da teknikari batzuek errealitatearen alderdi zehatzen bat ulertzeko asmoz garatzen duten prozesua, aspalditik legitimitzat jotzen den ezagutza Akademiatik datorrena delako, hau da, ezagutza zientifikoa ekoizteko zentroetatik (izan unibertsitateak edo bestelako ikerketa-zentroak). Era berean, ezagutza teorikoa etorri ohi zaigu burura, datuz, alderdi teknikoaz eta deskribapen abstraktuz josiriko txosten mardul bilakatzen dena.

Alabaina, hori ezagutza sortzeko moduetako bat besterik ez da. Badaude balio bereko bestelako eragile eta metodologiak errealitatea aztertzeko, ulertzeko eta konponbideak proposatzeko. **Aspalditik, GGKE-ek eta gizarte-mugimenduek ere ezagutza sortzeko jarduerak egiten dituzte, bestelako metodologiak erabiliz, tradizionalak bezain eraginkorrak eurak. Horietako bat IEP da, zeinak berezko ezaugarriak dituen.**

ZER ALDE DAGO IEP BATEN ETA IKERKETA TRADIZIONALAREN ARTEAN?

1. Ikerketa elkarteek, gizarte-mugimenduek edo jendartean aldaketak sustatzen dituzten beste eragile batzuek egiten dute. Horien ordezkariak talde bat osatzen dute, taldeak kanpo-erraztaile baten laguntza jasotzen du, eta taldeak erabakitzen du zer eta nola ikertuko den.
2. Ikerketa da, eta, horrenbestez, ezagutza sortzen du, baina ez teorikoa, baizik eta arazo sozial zehatz bat konpondu nahi duena. Horrexegatik, prozesua Ekintza Plan batekin bukatzen da, jorratzen ari den arazoari irtenbidea emateko.



3. Ez da behar ez ezagutzarik ez eskarmenturik ikerketa-arloan, horretarako baitago kanpo-erraztailea, eta garrantzitsuen da taldeko kideek jorratu nahi den gaia ezagutzea eta arazoak konpontzeari begira jarduteko prest egotea.

Zertarako balio du IEP batek?

Parte hartzen ari diren taldeari eta elkarteei hainbat ekarpen egiten die, baina batez ere balio du tartean diren pertsona eta erakundeei eragiten dien benetako arazo bat ulertzeko eta konpontzeko.

IEP BAT JANTOKIKO BATZORDEAK INDARTZEKO

IEP zehatz hau modu batera edo bestera jantoki osasuntsuagoak eta jasangarriagoak lortzeko konpromisoa duten hiru lurraldeetako guraso-elkarteekin aurrera eramateko proposamena da. IAPk honako ekarpen hau egingo du:

1. Guraso-elkartek eskoletan elikadura hobetzeko dituzten arazo komunak eta espezifikoak **aztertze** eta **horiei buruz eztabaidatzeko guneak**. Zehazki, jantokiko batzordeak aztertuko ditugu: zergatik ez dute izan lezaketen gaitasun eraldatzailea?
2. **Taldeak indartzea** eta sintonia berean dauden beste **batzuekin lotzea** ahalbidetzen duten prozesuak.
3. Dinamika berean dauden **beste batzuek zer egiten duten** jakiteko uneak.
4. **Irtenbide kolektiboak** planifikatzeko denbora, honako hauetarako:
 - Lehendik dauden jantokiko batzordeak indartzea.
 - Prozesuan daudenen sorrera sendotzea.
 - Eztabaida sustatzea eta batzordeak sortzea planteatu ez duten ikastetxeetan.



ZER DAKAR IEP BATEAN PARTE HARTZEAK?

Konpromisorik handiena da bileretan parte hartzeko eta haietatik kanpo jarduera gutxi batzuk garatzeko aukera izatea.

1. Prozesuak iraungo duen 12 hilabeteetan (2021eko ekainetik 2022ko ekainera), 6 bilera inguru egingo dira 3 lurraldeetako IGEekin (bilera-lekuak txandakatu egingo dira, talde osoak parte hartu ahal izatea errazteko).
2. Ekainean, lehenengo bilera bat egingo da *online*. Bilera horretan, elkar ezagutu eta hurrengo bileren datak, ordutegiak eta lekuak zehaztuko ditugu.
3. Parte-hartzaileei eskatuko zaie informazio apur bat biltzeko (galdetegi labur baten bidez) beren eskoletako beste guraso batzuekin batera.

Lanik tekniko eta teorikoena kanpo-erraztaileak egingo du nagusiki.

Laburbilduta, partekatzeko eta sortzeko prozesua izango da. Funtsean, zenbait bileratan parte hartuko da, eskola-jangeletako elikadurarekin loturiko arazoren bat aztertzeko eta errealitate bakoitzerako irtenbide egokiak topatzeko.



COMISIÓN DE COMEDOR: ¿POR QUÉ NO TIENE LA CAPACIDAD TRANSFORMADORA QUE DEBERÍA TENER? UN PROCESO PARTICIPATIVO PARA CONSEGUIR UNOS COMEDORES MÁS SANOS Y SOSTENIBLES

**Para el desarrollo de este proceso vamos a seguir una metodología participativa llamada Investigación Acción Participativa.*

¿QUÉ ES UNA INVESTIGACIÓN ACCIÓN PARTICIPATIVA (IAP)

Cuando pensamos en investigación lo primero que surge es la idea de un proceso llevado adelante por personas técnicas con la intención de comprender algún aspecto concreto de la realidad. Esto sucede porque desde hace mucho tiempo el conocimiento que se considera legítimo es el que proviene de la Academia, es decir de los centros de producción de conocimiento científico (ya sean Universidades u otros tipos de centros de investigación). También pensamos en un conocimiento de carácter teórico, que se transforma en extensos informes repletos de datos, aspectos técnicos y descripciones abstractas.

Sin embargo, esta es solo una de las formas de crear conocimiento. Existen otros agentes y otras metodologías igualmente válidas para analizar la realidad, comprender y proponer soluciones. **Desde hace mucho tiempo, también, las ONGD y los movimientos sociales realizan actividades de creación de conocimiento con metodologías alternativas, pero tan eficaces como las tradicionales. La IAP es una de esas metodologías con características específicas.**

¿EN QUÉ SE DIFERENCIA UNA IAP DE LA INVESTIGACIÓN TRADICIONAL?

1. La investigación se realiza desde asociaciones, movimientos sociales u otros agentes que promueven cambios en la sociedad. Se construye un grupo integrado por representantes de esas asociaciones que son acompañadas por una facilitadora externa. Este grupo es quien decide qué se va a investigar y cómo se va a investigar.



2. Es una investigación y como tal produce conocimiento, pero no teórico, sino un conocimiento que busca resolver un problema social determinado. Por ello, el proceso termina con un Plan de Acción para solucionar el problema que se trabaja.

3. No se requieren ni conocimientos ni experiencia en investigación, ya que ello lo proporciona la dinamizadora externa. Lo importante es que la gente del grupo conozca el tema que se quiere abordar y que esté dispuesta a aportar su mirada a la solución de los problemas.

¿Para qué sirve una IAP?

Proporciona diferentes aportes al grupo y asociaciones que involucra, pero, sobre todo sirve para comprender y resolver un problema real que afecta a las personas y organizaciones participantes.

UNA IAP PARA FORTALECER LAS COMISIONES DE COMEDOR

Esta IAP concreta es una propuesta para llevar adelante con AMPA de los tres territorios que están comprometidas de una forma u otra con el objetivo de lograr unos comedores más sanos y sostenibles. Lo que aportará la IAP será:

1. **Espacios para analizar y debatir sobre** los problemas comunes y específicos de las AMPA en su lucha por mejorar la alimentación en las escuelas. Concretamente nos centraremos en analizar **las comisiones de comedor**: ¿por qué no tienen la capacidad transformadora que podrían tener?
2. Procesos que permiten **fortalecer a los grupos** y **vincularlos con otros** que están en la misma sintonía.
3. Momentos para **conocer qué hacen otras** que están en la misma dinámica.
4. Tiempo para planificar **soluciones colectivas** para:
 - fortalecer las comisiones de comedor que ya existen.
 - consolidar la creación de aquellas que están en proceso.



-promover el debate y la creación de comisiones en aquellos centros donde no se lo han planteado.

¿QUÉ IMPLICA PARTICIPAR EN LA IAP?

El compromiso mayor que se exige es la posibilidad de participar en las reuniones y desarrollar algunas pocas actividades fuera de las mismas.

1. Durante los 12 meses (de junio 2021 a junio 2022) que durará el proceso se realizarán unas 6 reuniones con las AMPA de los 3 territorios (se irán rotando los lugares de reunión para facilitar la participación de todo el grupo).
2. En el mes de junio se realizará una primera reunión on-line en la que nos conoceremos y definiremos las fechas, horarios y lugares de las siguientes reuniones.
3. En el proceso se pedirá a las personas participantes que recaben algo de información (mediante un breve cuestionario) con otras madres y padres de sus propias escuelas.

El trabajo más técnico y teórico será realizado mayormente por la facilitadora externa.

En síntesis, será un proceso de compartir y crear, que implicará esencialmente participar en algunas reuniones en las que se analizará algún problema relacionado con la alimentación en los comedores escolares, con el objetivo de encontrar soluciones adecuadas para cada realidad